

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lehendakariak nabarmendu du esportazioen kopuruak krisi ekonomikoak Nafarroan izan duen eragina arindu duela

Yolanda Barcinak 150 zuzendari baino gehiago elkartu dituen enpresen internazionalizazioari buruzko jardunaldi batean hitz egin du, Iruñean.

Martes, 25 de marzo de 2014

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak 150 enpresariren aurrean azpimarratu du Nafarroako kanpoko sektorearen "sendotasuna". Horri esker, krisiaren eragina "arindu" da, 2008 eta 2013 artean Foru Komunitateak jasandako kaltea beste eskualde batzuen bano txikiagoa izatea eraginda. "BPGd-k behera egin du eta langabeziaren tasak nabarmen egin du gora, baina kanpoko sektoreak erakutsitako sendotasunagatik izan ez balitz, gaur egungoei baino zailtasun handiagoei aurre egin beharko genieke", adierazi du.

Bankiak eta Diario de Navarra egunkariak antolatutako jardunaldiaren irekieran egin ditu [adierazpenak](#) Yolanda Barcinak. "Internacionalización, financiación y experiencias empresariales" (internazionalizazioa, finantzazioa eta enpresa-esperientziak) izen generikoaren pean, 150 enpresari eta zuzendari baino gehiago elkartu ditu, besteak beste, Lourdes Goicoechea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria.

Nafarroako Lehendakariak Foru Komunitateko kanpoko sektorearen bultzada aditzera ematen duten hainbat datu aipatu ditu. Besteak beste, adierazi du esportazioek % 2ko hazkuntza izan zutela iragan urtean; 7.383 milioi eurokoak izan ziren. Gauzak horrela, Nafarroako BPGd-ren % 40 inguru dira esportazioak, beraz, Foru Komunitatea da nazioarteko merkataritzan garrantzi handiena duen estatuko eskualdea.

Era berean, "susperraldia hasi denaren ideari sinesgarritasuna ematen dioten adierazle ekonomikoak" aipatu ditu. Besteak beste, Nafarroako industria-ekoizpenaren indizearen berri eman du, 2013an % 4 hazi zen (estatuan, batez beste, % 0,1 hazi zen), baita txikizkako merkataritzaren indizearen berri ere, izan ere, 7 hamarreneko urte arteko aurrerapena egin du (estatu osoan 2 hamarren egin du behera).

Amaitzeko, [Nafarroako 2013-2016 Nazioarteko Planaren](#) barruan enpresei emango zaizkien laguntzak azaldu ditu. Gogorazi die ez daudela bakarrik eta Nafarroako Gobernuaren babesaren dutela. Horri lotuta, zerbitzu bateratuen katalogoa aipatu du, administrazioak zein beste erakunde ekonomiko batzuek eskaintzen dituzten zerbitzuen, baita [kanpora taldean ateratzeko laguntzak](#) eta nazioarteko lizitatzaleen merkaturaren lehiazeko [laguntza-programa](#) ere; azken bi horien deialdiak berriki egin dira.